



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: BIOLONTXELOA

2023-03-04

Nori zuzenduak?

Graduko **Biolontxelo Interpretazio** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko otsailaren 24ean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Biolontxelo interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

MARTÍNEZ, Damián eta GOMZYAKOV, Pavel

9:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira: **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:00-11:00 Damián Martínez espezialitateko irakasleak eskola irekiak emango dizkie Musikeneko ikasleei

11:00-14:00 Damián Martínez espezialitateko irakasleak eskola irekiak emango dizkie hala nahi duten ikasle aktiboiei

15:00-16:00 Pavel Gomzyakov espezialitateko irakasleak eskola irekiak emango dizkie Musikeneko ikasleei

16:00-19:00 Pavel Gomzyakov espezialitateko irakasleak eskola irekiak emango dizkie hala nahi duten ikasle aktiboiei

Biolontxelo jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifikoko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll Hari Departamentuko buruarekin: dpto.cuerda@musikene.net